

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 21a

644. zenbakia

HIRIGINTZA/ Goenkaleko urbanizazioari ekingo dio jarraian Ozio enpresak

Arruriaga eta Artekale, azaro erdialdean zabalik

EDU MENDIBIL

Arruriaga eta Artekaleko urbanizazio lanak bukatzeaz daude. Ozio enpresako langileek azken ukituekin dihardute egunotan. Apiriletik trafikoa etenda egon ondoren, azaro erdialderako Arruriaga eta Artekale zabalduko dituzte berriro. Goenkaleko urbanizazio lanak egingo dituzte jarraian.

Artekale eta Arruriagan egindako lanak Iñaki Aspiazu arkitektoaren proiektuari jarraituta egin dituzte. Lasarteko Ozio enpresak apiriletik dihardu lanean eta, esan bezala, lanak amai-

tzeaz daude. Ur hoditeria aldatu eta espaloiak berritu dituzte, besteak beste. Era berean, 12 farola jarriko dituzte Arruriagatik udaltxera doan tartean. Aipatutako zatiak 177 metroko luzera dauka eta galtzada-harria bistan laga dute tarte horretan. 14.000 galtzada-harri inguru jarri dituzte Ozio enpresako langileek azken hilabeteotan. Orain egun batzuk beharko dira galtzada-harria behar den bezala finkatzeko.

HERRI BARRUA BERRESKURATU

Herri barrua berreskuratzea izan da lanon helburu nagusia. Farolez gain, bestelako apaingarriak ere jarriko dituzte Arruriagan,

hainbat banku tartean. Aurrekontua 1.200.637 eurokoa izan da. Jose Antonio Etxeberria Hirigintza batzordeburuaren hitzetan, "Arruriaga eta Artekale azaro erdialdera zabaltzeko asmoa dugu berriz trafikora". Hango bizilagun eta dendariak lanak bukatzeko irrikaz daude. Izan ere, oztopo ugari jasan behar izan dituzte lanengatik.

Artekale eta Arruriagako lanekin amaitu ondoren, Goenkaleko urbanizazioa egingo dute. Hain zuzen ere, orain egindako lanen jarraipena izango da. Udalak Ozio enpresari adjudikatu dizkio lanak, 453.115 euroko aurrekontuarekin.



Langileak azken ukituak ematen ari dira egunotan Arruriagan eta Artekalean.



Bedelkarrek bi sari banatu ditu bezeroen artean

Bedelkar herriko dendarien elkarteak aurreko zapatuan egindako zozketan, Oihana Agirre eta Santos Moreno izan dira saridunak. 500 euroko erosketa-bonu bana jaso dute Santosek eta Oihanak. Argazkian ikusten dituzue irabazleak, Tere Gabilondo Bedelkarko presidentearekin eta Bergarako Rural Kutxako Asier Perez zuzendariarekin batera.

LABUR

Leire Agirre eskalatzaillearen hitzaldia eta diapositiba emanaldia egunean Pol-Polen

Jardun elkarteak antolatuta, Leire Agirre eskalatzaille azpeitiarraren diapositiba emanaldia izango da egunean, hilaren 27an, Pol-Polen, 19:00etan. Besteak beste, Maroko, Alemania edo AEB-tan izandako esperientziak azalduko ditu Agirrek.

Haur hezkuntzako gurasoei zuzendutako bilerak Aranzadi Ikastolan hurrengo astean

Haur hezkuntzako gurasoendako bilerak izango dira hurrengo astean Aranzadin: 3 urteko ikasleen gurasoena urriaren 24an; 4 urteko gurasoena urriaren 25ean; 5 urteko gurasoena urriaren 26an eta 2 urteko ikasleen gurasoena urriaren 27an. Bilera guztiak San Martin plazako eraikinean izango dira, 18:30ean.



LEVI'S

banatzaile ofiziala Bergaran

Tailak 36tik 54ra

SAN PEDRO 14 • TEL.: 943 76 07 55



GIZARTEA/ Eskolak martitzenean hasiko dira; hirugarren urtez antolatu du ikastaroa Udaleko Gizarte Zerbitzuak

Etxeko ardurak trukatzeko ikastaroa

E.M.

Hirugarren urtez jarraian, gizonen eta emakumeen arizonen etxeko ardurak trukatzeko ikastaroa abian jarri du Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Eskolak martitzenean, urriaren 25ean, hasiko dira eta izenematea zabalik dago.

Emakumeek iturgintza, elektrizitatea, etxeko ekologia eta bricolajea ikasiko dute; gizonezkoek, berriz, arropa lisatzen eta josten, sukaldaritza, garbiketa eta etxeko ekologia.

Eskolak, esan bezala, urriaren 25ean hasiko dira. Martitzen eta eguenean izango dira eskolak, 18:30etik 20:30era. Gizonen taldea Boni Laskuraingo erretiratuen egoitzan elkartuko da eta emakumeak, berriz, Martokoko eskolan. Abenduaren 8an amaituko da ikastaroa. Bide Egin

enpresa arduratuko da eskolak zuzentzeaz.

SEXU ESTEREOTIPOAK APURTU

Beharrezko trebeziak eskuratuz, sexu estereotipoak apurtzea da ikastaroon helburu nagusia. Gizarte Zerbitzuko arduradunek azpimarratzen dutenez, "ikastaroan parte hartzen dutenak betidanik beste sexuari ezarri zaizkion erantzukizun eta gaitasunetan murgildu ahal izango dira, trebeziak garatuz eta hauekin doazen baloreak barneratuz".

Aurreko urteotan jasotako erantzunarekin pozik dira ikastaroaren antolatzaileak. Esan bezala, hirugarren urtez antolatu dute ikastaroa aurten.

Izenematea zabalik dago Udaleko Gizarte Zerbitzuan. Plaza mugatuak dira eta interesatuek lehenbailehen eman beharko dute izena. Argibideak 943 77 91 25 telefonoan jaso ditzakezue.



Gizonek sukaldaritza ikasteko aukera izango dute, besteak beste.

LABUR

1933an jaiotako bazkaria azaroaren 13an

1933an jaiotako bergararrek bazkaria egingo dute datorren azaroaren 13an. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, Zumelaga jatetxean izango da bazkaria. Izenematea (6 euroko aurrerapena) Intxorta tabernan egin daiteke.

1945ean jaiotako afaria azaroaren 12an

1945ean jaiotako bergararrek afaria egingo dute azaroaren 12an. Hain zuzen ere, Torrekua jatetxean izango da afaria, 21:00etan. Izena emateko epea urriaren 25era arte dago zabalik Kutxan zabalduko kontuan. 30 euro ordaindu behar dira.



EHNA egiteko aukera hurrengo zapatuan

Bai Euskal Herriari ekimenak aditzera eman duenez, EHNA egiteko aukera izango da Bergaran hurrengo zapatuan, urriaren 29an. Interesatuek Irizar jauregira jo beharko dute, 11:30etik 13:30era bitartean. EHNA eskuratu ahal izateko beharrezkoa da zera eramatea: hiru argazki, errolda-agiria eta 15 euro.

Haur hezkuntzako guraso eskola hasiko da azaroan

E.M.

Gizarte Ongizate Prebentzio Zerbitzuak antolatuta, gurasoei zuzendutako eskolak izango dira azarotik aurrera. Aipatutako eskolak hiru taldetan banatzen dira; haur hezkuntzako azaroan hasiko da.

2-6 urte bitarteko seme-alabak dituztenei zuzenduta dago haur hezkuntzako guraso eskola. Hainbat egoeraren aurrean orientazioa ematea da helburua. Haurren garapen psikologikoa eta emozionala, familia mailako komunikazioa, elikadura, loa, haurraren segurtasun sentipena... landuko dituzte, besteak beste, teoria eta praktika uztartuz.

AZAROAN ABIAN

Haur hezkuntzako guraso eskola azaroan jarriko dute abian eta



Haurren hainbat egoeraren aurrean orientazioa ematea da helburua.

izenematea urriaren 27ra arte dago zabalik udaletxean. Izena emateko 943 77 91 26 telefono zenbakira edo aloidi@bergara.net helbide elektronikora jo dezake-

zue lehenbailehen. Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako guraso eskolak urtarrietik aurrera antolatuko dituzte.

smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

Eskuratzeko modua:

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA

Deiaren prezioa: 0,90 + BEZA/ Abesti eta logoak (sms 1) Soinuak (2sms)

7505
zenbakira



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragaria den eskola...

2. BALDINTZAK: Edozein eskuratzeko, beharrezkoa da GPS sistema aktibatu izatea...

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, gurekin kontaktatu: smsoinu@smsoinu.com edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgure honetan dituzte etabazkoak eskura dazakezue...

- Himnoak**
Eibar i EIBAR
Athletic Club i BILBAO
Osasuna i OSASUNA
Real i REAL
- Pop-Rock**
Aitormena (Hertzainak) i AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) i AIZKO
Amore amore (Kardeseko benta) i AMORE
Bi Minutero (Hertzainak) i BIMINU
Dub manifest (Femín Mugarra) i DUB
Eguzker (Hertzainak) i EGUZKERO
ER Sukarra (EH Sukarra) i SUKAR
Elos dicen merda, nosotros amen (La Polla) i ELLOS
Enamorado de la muerte (ESP) i ENAMID
Etorzuna (Esaia) i ETORKI
Ezer ez da betiko (Kan7) i EZER
Gora Herria (Naga Gorriak) i GORA

- Hator Bel-Air (Bide Ertzean) i BELAIR
Haizea (Kan7) i HAIZEA
Hegal egiten (Itxaso) i HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) i IKUSI
Ilargia (Kan7) i KEN
Inperuen ate joka (Gabilu) i INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) i JOKIN
Kaixo (Urte) i KAIXO
Lau Teilatuta (Itxaso) i ITOIZLAU
Laztana (Latzan) i LAZTA
Lotuta egon arren (Kokain) i LOTUTA
Loretxoa (XXXXXX) i LORE
Marea Gora (Itxaso) i MAREA
Musturrek sartunde (Gabilu) i MUSTURREK
Nigaragura (Kortatu) i NICA
No time for love (Hertzainak) i NOTIME
Salve (La Polla) i SALVE
Sari Sari (Kortatu) i SARRI

- Sorginen leizean (Etxaso) i SORGIN
Txatxo (Zarama) i TXATXO1
Txus (La Polla) i TXUS
- Trikitia**
Bexamela ta pestela (Maizta ta Isas) i BEXAMELA
Bokespok (Kopa Junkera) i BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapi) i HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) i ITSAS
Kupela (Epele eta Larrañaga) i KUPELA
Mila galdera (Alatz/Maider) i MILAI
Nirekin (Gaztegi) i GOZATEGI
Ny Hirahira (Kopa Junkera) i HIRA
Txanpon baten truke (Alatz/Maider) i TXANPON
- Folk**
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) i SOROTAN
Bai euskarari (Parozoa) i BAI
Bakezaleak (Anje Duhalde) i BAKE
Bizkaia Maite (Bento Lertxundi) i BIZKAIA

- Eperrak (Anje Duhalde) i EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) i EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) i EUSKALDUN
Ez da posible (Paper Ondorri) i POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) i FURRA
Galiziera noa (Oskorri) i GALIZIARA
Gemikako Arbola (Gonzal Mendibila) i GERNIKAI
Haika Mutil (Mikel Laboa) i HAIKA
Izarren hautsa (Kaber Leta) i IZARREN
Lepon hartu ta (Pantxo/Peto) i LEPON
Marianelaren zai (Sorotan Bele) i MARINE
Nere herriko neskatza maite (Lertxundi) i NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarín) i NON
O! Ama Euskal Herria (Lertxundi) i OIAMA
Tirakoi (Oskorri) i TIRA
Txabamabainabau (Mikel Urdangarín) i TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) i TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Paper Ondorri) i ZAINDU

- Herrikoia**
Bagare BAGARE
Desde Santurce a Bilbao i DESDE
Ikusi Mendizaleak i MENDI
Pintxo-pintxo i PINTXO
San Simon eta San Judas i SAN
- Jaietakoak**
Artillero dale fuego i ARTILLERO
Marijaita (Kopa Junkera) i JAIJA
San Fermín i FERMIN
San Martzialako alardea i SAN MARTZIAL
- SOINU ERREALAK (2 sms)**
Soinu izena i KODEA
Irrintzia i IRRINTZI
Txalparta i TXALA

- JOKOAK (4 sms)**
- | | | |
|-----------|----------|-------------|
| BOINK | NEUTRON2 | RALLYDELUXE |
| FUTVOLLEY | NOR | SOBALL |
- Eskuratzeko modua:**
JOKUA: SOINUJ+hutsunea+KODEA
7505 zenbakira
Prezioa: 3,6 +BEZA



San Joxepe elkarteko ordezkariak aurkeztu zuten Hamabostaldia iragartzeko kartela, astelehenean.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ERRETIRATUAK/ Mariano Ferrerren hitzaldia izango da eguaztenean, Miguel Altunan

Abian da erretiratuen IX. Kultur Hamabostaldia

E.M.

Astelehenean hasiera eman zitzaien Antzuola eta Bergarako erretiratuek antolatutako Kultur Hamabostaldiari. Juan Iturralde San Joxepeko presidentek aurkeztu zuen Hamabostaldia iragartzeko egindako kartela. Erretiratuen egoitzan pintura ikastaroan dabilzan ikasleek

egindakoa da. Era berean, aukuratutako leloari (*Bakea amets*) eusteko garrantzia azpimarratu zuen Iturralde. Iturralderen arabera, "uste dugu intereseko hitzaldi eta ekitaldiak antolatu ditugula eta herritarrek parte hartzea gonbidatzen ditugu".

Hamabostaldiaren programazioarekin jarraituz, eguaztenean, urriaren 26an, izango da

bigarren eta azken hitzaldia. Mariano Ferrerrek *Bakea, gaur eta hemen* izenburuko hitzaldia egingo du Miguel Altunako aretoan, 19:30ean.

BILBORA IRTEERA HILAREN 28AN

Egubakoitzean, urriaren 28an, Bilbora joateko irteera antolatu dute erretiratuek. Argibideak 943 76 30 09 telefonoan.


LABUR

1947an jaiotako bergararren bazkaria azaroaren 5ean, Remelluri upelategian

1947ko jaiotako bergarrek Bastidara irteera egingo dute azaroaren 5ean. Irteera 10:30ean egingo dute eta Bastidan ibili ondoren, hango Remelluri upelategian bazkalduko dute. Izenematea (47 euro) Euskadiko Kutxan egin daiteke, urriaren 29ra arte.

1964an jaiotako bergarrek afaria egingo dute datorren azaroaren 19an

1964an jaiotako bergararren afaria izango da azaroaren 19an, Torrekoa jatetxean. Afarira joan nahi dutenek azaroaren 13ra bitartean daukate izena emateko aukera, 10 euro aurreratuz. Interesatuak San Martin plazako kioskora joan daitezke.



Arantzazuraino heldu da San Migel aurten

Angiozarko jaietan ohikoa dutenez, San Migelen zeruratzea egin zuten irailaren 29an. Eta handik sei egunera aurkitu zuen Alfredo izeneko oñatiar batek, Arantzazu inguruan. Zuhaitz batetik santua zintzilik aurkituta susto ederra hartu zuen Alfredo. Hala ere, sari ederra ekarri zion angiozartarren zaindariak: 200 euro eta bi lagunendako afaria Angiozarren.

Ganbara
TABERNA
Heure erara ibiltzeko!
Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

Irrintzi
kafetegia
Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

HIRU BIDE
JATETXEA-BENTIA
Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

FRONTOI
TABERNA
Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara

KONDE
PANADEROKUA
Burdinate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

ETXE BERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

PILOTA/ Gaztetxoek partiduak jokatu dira zapatu arratsaldean Osintxun

Kluben Arteko Txapelketa domeka goizean pilotalekuan

EDU MENDIBIL

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako hiru partidu izango dira domekan Udal Pilotalekuan, 11:30ean. Era berean, infantil mailako Gipuzkoako Txapelketako bost partidu jokatu dira zapatuan Osintxun, 17:00etan.

Gipuzkoako Txapelketako partiduen aurretik Gabon Sariko hiru partidu iragarri dituzte Osintxun, 16:00etarako. Ondoren, infantil mailako bost partidu jokatu dira, eskualde mailakoak. Bergarako bi bikoteak Aretxabaleta eta Arrasateko ordezkarien aurka arituko dira. Beñat Rezusta, Iñaki Diez, Lander Ugarte, Jokin Osa, Andoni Fernandez, Igor Igartua eta German Azkarate ari dira Bergara ordezkatzeko. Rezustak eta Diezek lehen partidu irabazi zituen aurreko astean Aloña Mendiri, 18-6.

DOMEKAN, UDAL PILOTALEKUAN

Domekan, esan bezala, Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa-



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Mugurutzak eta Herranek (argazkian) 9-22 galdu zuten ostiralean Beharzanen aurka.

ko partiduak egongo dira Udal Pilotalekuan, 11:30ean hasita. Bigarren gazte mailan, Andoni Elorzak eta Ibon Berraondok Zarautzeko ordezkarien aurka jokatu dute; senior mailan, binaka, Eneko Mugurutzak eta Joseba Herranek Txapagañeko bikotea hartuko dute; eta bana-

taldeko ordezkaria izango du aurrean.

Begarako ordezkariari dago-kionez, Oier Aldai-Jon Larrañaga gazte mailako bikotea dugu indartsuen: partidu denak irabazi dituzte. Aritz Rezusta, Gorka Irizar eta Jon Perez kadete mailako ordezkariak partidu bakarra galdu dute.

Begarako futbol taldeek lau partidu izango dituzte etxean aste bukaeran

E.M.

Begara KEko futbol taldeek lau partidu izango dituzte etxean: infantil mailakoak Oriokoren aurka jokatu du zapatuan, 10:00etan; bigarren kadete mailakoak Ilintxaren bisita izango du, 12:00etan; eta lehen gazte mailakoak Euskalduna hartuko du, 17:00etan. Domekan partidu bakarra izango da Ipintzan: ohorezko kadete mailan, Bergara-Antiguoko, 11:30ean.

ERREGIONAL MAILAKOA ONDARROAN

Erregional mailako taldeak Aurrera Ondarroaren aurka jokatu du zapatuan, arratsaldeko 17:00etan.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Erregional mailako taldeak hutsa berdindu zuen zapatuan Mundaroren aurka.

LABUR

Begara-Leitzaran gazte mailako eskubalo partiduak zapatu arratsaldean Labegaraletan

Eskubaloiko partidu bakarra izango da aste bukaeran Bergaran: gazte mailako mutilen taldeak Leitzaranen aurka jokatu du bihar, zapatua, kiroldegian, 16:30ean. Orain arte jokatuak bi partiduak irabazi dituzte bergarrek.

Agirre eta Bengoetxea lau t'erdia barruan domekan Bergarako Udal Pilotalekuan

Domekan, urriaren 23an, profesional mailako pilota jaialdia izango da Bergarako Udal Pilotalekuan, 17:00etan. Lehenbiziko partiduan Martinez de Irujok eta Eulatek Del Rey eta Pascualen aurka jokatu dute; ondoren, lau t'erdian, Agirre eta Bengoetxea VI.a izango dira aurrez aurre; eta, azkenik, Berraondo-Zubieta eta Baleztena-Galartza VI.a bikoteek neurtuko dituzte indarrak.


Junior eta gazte mailako saskibalo partiduak bihar Labegaraletako kiroldegian

Zapatuan bi saskibalo partidu jokatu dira kiroldegian: kadete mailako mutilen taldeak Aloña Mendiren aurka jokatu du eguerdian, 12:15ean; arratsaldean, berriz, junior mailako mutilek Lasalleren aurka jokatu dute, 19:15ean.



Shotokan taldekoak Azkoitian sarituak

Begarako Shotokan karate taldeak ekin dio denboraldi berriari. Domekan, Azkoitian lehiatu ziren, gerriko beltzik ez duten Gipuzkoako Txapelketan. Katetan Unai Zabartek lehen postua lortu zuen. Kunitetan, berriz, Jon Gonzalez lehenengoa sailkatu zen 70 kg-tik beherako artean eta Ainhoa Zafra bigarrena izan zen 60 kg-tik gorakoetan. Shotokanekoak pozik itzuli ziren Azkoitian lortutakoarekin.



TELEFONO ZENBAKI BERRIA DUGU BERRIGARAN:

943 25 05 02

ELKARRIZKETA

DAVID URBINA/SENIOR MAILAKO SASKIBALOI TALDEKO ENTRENATZAILEA

“Entrenatzaileak lortzea da daukagun arazorik handiena”

E.M.

Senior mailako mutilen taldeak ligako lehen partidua galdu zuen zapatuan, Alde Zaharraren aurka, 56-58. Mikel Etxeberriarekin batera, hirugarren urtez David Urbina dugu taldeko entrenatzailea. Era berean, junior mailako mutilena zuzentzen du Davidek.

Ezin izan duzue liga garaipen batekin hasi...

Ez. 12 jokalaririk dira taldean, baina zapatuan sei bakarrik ziren jokatzeko moduan. Eta horrela zaila da partidu bat aurrera ateratzea. Hala ere, bi puntuko aldearekin bakarrik galdu genuen... Bihar, zapatua, ea lehen partidua irabazterik dugun, Pasaian.

Pozik al zaude osatutako taldearekin?

Bai. Antolatzaile postuan aritzeko jokalaririk baten faltan gaudela, baina beste postuetan talde

orekatua daukagu. Hegaleko jokalariek batez ere, Gorka Eraña eta Iker Murillo goraiapatuko nituzke. Aurten bi fitxaketa egin ditugu, Aritz Antzin eta Xabi Aliaga arrasatearrak etorri baitira gurekin jokatzera.

Saskibaloia sailean lau talde osatu dituzue. Indartsu dago Bergarako saskibaloia?

Ez pentsa. Junior mailako taldean 9 jokalaririk bakarrik ditut eta kadete mailan zirenean bi talde geneuzkan, 24 lagun jokalaririk denora. 16-18 urte bitartekoak dira orain eta adin batetik aurrera zai-

la egiten da gazteek saskibaloian, kirolean motibazioa topatzea. Beste gauza batzuk dituzte buruan... Era berean, entrenatzaileak lortzea ez da batere erraza; hor daukagu arazorik handiena. Hiru lagunon artean eramanen ditugu lau taldeak: kadete mailakoak Mikel Etxeberriak (mutilena) eta Jokin Perezek (neskena) zuzentzen dituzte.


Mariaren Lagundian eta Kiroldegian ari zarete jokatzeko...

Nahiago izateko dugu kiroldegian jokatu, baina nahi baino ordu gutxiago egoten dira libre, entrenatzeko zein jokatzeko.

Tau taldean jarraitzen duzu?

Bai, junior mailakoan ari naiz laguntzaile. Izugarritzako maila daukate; lehengoan 104 puntuko aldearekin irabazi zuten mutilek. Tartean Bergarako bi mutil daude: Igor Moracho eta Ander Gartzia.

“Adin batetik aurrera zaila da gazteek kirolean motibazioa topatzea”



BERRIGARA



Urbasa aldenik alde zeharkatzen

Pol-Poleko beterranoek denboraldiko azken aurreko irteera egin zuten urriaren 9an. Aldenik alde zeharkatu zuten Urbasa, Ziorditik Bakedanora. 37 lagun izan ziren aipatutako ibilaldiarekin gozatu zutenak. Amaieran, Pilatos behatokia zeharkatu ondoren, Urederra iturburura jaitsi ziren. Oraindik irteera bat geratzen zaie Pol-Polekoei denboraldia bukatzeko. Azaroaren 20an Lizarrusti-Zaldibia zeharkaldia egingo dute. Egun guztirako irteera izango da eta azken irteera denez, Zaldibian bazkalduko dute, denboraldia behar bezala agurtzeko.

LABEGARAIETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Mongatxu.-Niu Tim. Belengua
10:30: Santana-Belengua. Mongatx.

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Pub Irish-Txakurra. Paco Cia
10:30: Errotagain-Paco Cia. Txakurra
11:30: SDTNT-Egurre. Guri Guri
12:30: Teatekh-Guri Guri. Egurre
16:00: A Ze Flaxa-Makanaki. Fit
17:00: Fit-All-Blacks. Kalaveras
18:00: Kalaveras-K. Piper. All Blacks

OHARRA: Hurrengo aste bukaeran, azaroaren 1eko zubia dela eta, ez da jardunaldirik jokatzeko.

margolan
margoak

- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ margo industrialak
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ erreformak orokorrean

Sagasti auzoa Z^a 5-3D
20577 ANTZUOLA - 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955
687 570 777

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ezpeleta

Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako
mahai-zapi eta industri-ehunak

Helbide berria

Urbite Pol. industrialak,
UI sekzioa, 12 Pabilioia
Eroski hipermerkatu ondoan
48220 ABADINO
Tel.: 94 621 58 10
Faxa: 94 620 28 15

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

MUSIKA/ Lausardi abesbatzaren emanaldia Udal pilotalekuan

Lausardi abesbatza sinfonikoak 'Afrika' ikuskizuna eskainiko du

IRATI AGIRREAZALDEGI


Bergarako Orfeoia eta Arrasateko Goikobalu Abesbatzak osatutako Lausardi abesbatza sinfonikoak *Afrika* emanaldia eskainiko du bihar, zapatua. Kontzertua 22:00etan izango da Udal Pilotalekuan eta sarrerak bertan eros daitezke 12 eurotan.

Afrika obra Donato Goienetxek konposatu du eta bera izango da ikuskizunaren zuzendaria. Bertan parte hartuko dute Lausardi abesbatza sinfonikoko abeslariak; Mari Fe Nogales eta Jesus Garcia Arejulak bakarlarari moduan; eta Donostiako perkusio joleak.

Afrika ahotsez eta perkusioz osatutako ikuskizuna da. Perkusio instrumentu autoktonoak eta klasikoak erabiliko dituzte; gutxira ia 50 tresna. 90 pertsonatik gora izango dira eszenatokian herrien eta kulturen indarra eta aberastasuna konpositoreak emandako modernotasun alaiarekin nahastuz. Emanaldian blues, jazz eta funky doinuak entzungo dira besteak beste.

LAUSARDI ABESBATZA

Lausardi abesbatza sinfonikoaren helburua nagusia da musika sinfoniko-korala bultzatzea;



KIMU

Lausardi abesbatza sinfonikoaren helburua nagusia da musika sinfoniko-korala bultzatzea.

batez ere euskal egileena; eta lan honetan inguruko taldeak partaide izan nahi dituzte. "Lausardi abesbatzak proiektu koral berri eta interesgarriak sortu eta bultzatu nahi ditu: euskal musikagileen lanen estreinal-

diak, grabaketak, lan berrien enkarguak, partituren argitalpenak, haur koruendako proposamen berriak..." diote Lausardiko kideek.

Abesbatzaren zuzendaritza, Iñaki Maidagan eta David Azur-

tzarena ardurapean dago; Goikobalu abesbatzaren eta Bergarako Orfeoia zuzendariak hurrenez hurren. Lausardik, gaur egun, sustatzaileen laguntzaz gain, Oñatiko Ganbara Abesbatzarena ere jasotzen du.

Iñigo Alberdi Amasorrain

San Martin Agirreren ereserkiaren mendeurrena



Gaurkoan *de facto* Bergarako ereserki kontsideratzen den abestiaz hitz egin behar dugu. *Goratu zugun* famatuak, hain zuzen ere, 100 urte betetzen baititu. Abesti hau udalak antolatutako lehiaketan irabazle suertatu zen. Ordura arte San Martinen omenezko kantu guztiak elizakoak ziren, erdarazkoak edo latinezkoak denak, eta liturgian pentsatuak.

San Martin Agirre bera bergarartasunaren espresio gorenzat harturik, eta izaera hori nabarmenezko, ereserki honetarako lehiaketa antolatutako udalak garaiko musikagile prestuen artean (*Del Pais Vasco-Navarro* aktetan jasotzen denez). Testua, egile ezezagunarena eta gipuzkeraz idatzia, udalak eman


zuen, horretarako orri batzuk argitaratu zirelarik. Pena da, baina ez dakigu zein musikari aurkeztu ziren lehiaketara. Aktetan hamaika musikari aurkeztu zirela aipatzen da, besterik ez (irabazleaz aparte bat bakarra ezagutzen dugu, Donostiako Ildonso Lizarriturri). Musika lehiaketetan erabiltzen zen sistema (gaur ere askotan horrela egiten da) lemarena zen. Hau da, partitura korreoz bidaltzen zen, izenik gabe, gaitziz edo lema batekin, eta partituraren ondoan beste gutunazal itxi baten gaitziz horren atzean zegoen pertsonaren benetako izena agertzen zen. Epaimahaiak partitura guztiak aztertu (egilea zein zen jakin gabe), eta onena aukeratuakoa orduan irekitzen zen gutunazala. Epaimahaia Buenaventura Zapirain (*Chanton Piperrri*, lehen euskal operaren konposatzailea), Zirilo Agirre eta Pablo Retana (organo joleak), Ramon Ruiz (bandaren zuzendaria) eta Alejandro Gimenezek (Gasteizko musikaria) osatu zuten.

Irabazlea Alberto Garaizabal izan zen. Egileak bere obra *Be-*

deinka ezazu Bergara zure jayoterriya lemapean aurkeztu zuen. Donostian 1875ean jaiotakoa, urte haietan Zumarragako organo jole lana betetzen zuen. Gerora, 1914 urtean, Galizia aldera jo zuen eta bertan bizi izan zen. A Coruñan 1947an hil zen arte. Hiri horretako bizitza musikalean erabateko erreferentzia bilakatu zuen: Orquesta Filarmonica Coruñesa sortu zuen, kontserbatorioko zuzendari izan zen...

Begarako lehiaketara aurkeztu zuen lana oso ona dela esan behar da, herrikoia eta dotorea aldi berean. Bere lanagatik 150 pezeta jaso zituen. Bere pertsona eta konposatzaile izaera aldarrikatzea gainera justiziazkoa da, lan hau grabatu den aldi bakarrean (*Begarako Martxak* CDan, 1995koa) Garaizabalen izena ipini beharrean Sagastizabal ipini baitzen akatsez.

Lanaren estreinaldia, 1905 urte hartako Euskal Festa edo *Fiestas Euskaras*-en barruan egin zen. Urtero herri baten ospatzen ziren eta hartan Bergarari tokatu zitzaion. Ekitaldi mordo ospatu zen Bergaran: olerki



GOENAGA

Ereserkiaren egile Alberto Garaizabal musikaria.

lehiaketa, nekazal feria, Bergarako seme *argidortarren* omenezko belada, banden lehiaketa... *Goratu zugun* ereserkiaren estreinaldia hurren jaialdi baten egin zen, urriaren 6an (aurretik herriko ikastetxe guztietan abestia ikasi zuten). Euskal-Festetako egitarauak mila umetik gora izan zirela jasotzen du,

eta bandaren laguntzaz kalejira egin zutela. Ekitaldia bukatzeko *Gernikako Arbola* abestu zen. Historiaren pasarte hauek noizean behin gogoratzea egokia da, gure herriko historiaren zati baitira. Gainera mintzagai daukagun abestiak esaten duen bezala: "*Begararak ez du inoiz ahaztuko*".

LABUR

Zein? eta Zea Mays taldeen kontzertua bihar gaztetxean

Bihar, zapatua, kontzertua izango da gaztetxean 22:30ean. Bertan jardungo dute Zein? eta Zea Mays Bilboko taldeek. Zein? taldeko lau partaideek eskarmentu handia dute musika munduan. 602 eta *Photogram* diskoetako garage, pop, rock, noise eta blues doinuak nahasten dituzte. Zea Mays laukotekoek pop eta rock doinuak eskainiko dituzte kontzertuan; *Sortuz, grabitatearen aurka* diskoa aurkeztuta dago gaztetxera.

Arenazaren margoak Donostian jarri dituzte ikusgai

Fernando Arenaza margolari bergararraren lanak azaroren 1era bitartean ikusgai izango dira Kutxaren Boulevard aretoan. Donostiako Boulevardean dago erakusketa aretoa. *Hankaz Gora* izeneko erakusketa astelehentik zapatuta bitartean 18:00etatik 21:00etara bitartean bisitatu ahal izango da jai egunetan, berriz, 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 21:00etara. Arenaza Beart taldeko kide da. Bakarkako hamar erakusketatant eta taldeko 35etan hartu du parte.

MINGAINARITIRAKA



Arantxa Belategi

ARANTXA DENDAKOIA

Orain dela hamaika urteko irailean azoka berria zabaldu zutenetik, hantxe dauka bere denda Arantxak. Bertako produktuak saltzen ditu. Herrian dendarienganako arreta txikia dagoela kontatu digu.

Bertakoa beti da hobea?

Bai, noski; bertan hazitako produktuak ezagunak ditugu, badakigu zein auzotakoak eta zein baserritakoak diren.

Euri zaparrada ederrak botatzen dihardu. Gustura hartzen duzu eguraldi hau?

Bai; dena dela, nahiko eginda dagoela uste dut eta eguzkia ere ondo etortzen da.

Barazkiak ala lekaleak nahiago?

Biak; nik denetik jaten dut.

Haragia ala arraina?

Arraina.

Hipermerkatuetara joaten zara?

Saiatzen naiz ez joaten; nahiago dut herriko dendetan erosi, bai jatekoa, baita bestelako gauzak ere.

Zer ez da inoiz falta zure etxeko hozkailuan?

Jogurtak, baserriko esnea, arraina, haragia...

Zure lanean, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Jendearekin dudan harremana; baserriko jende asko etortzen da, kalekoak ere bai... Harreman estua egiten duzu jendearekin, eta hori oso polita da.

Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Ordu asko sartu behar dela; oso lan lotua da, gustukoa, baina oso lotua.

Denbora librean, zer egiten duzu?

Denbora libre laburra daukat, baina gustatzen zait mendira joatea eta lagunekin egotea.

Mendi bat?

Urbia ingurua asko gustatzen zait.

Zerk amorratzen zaitu?

Dendariaren ikuspegitik herrian dendarienganako geroago eta arreta txikiagoa dagoela ikusteak. Aparkalekuak, esaterako, geroago eta gutxiago daude, eta horregatik, jendea kanpora joaten da erosketak egitera.

Bukatzeke, amets bat?

Osasuntsu bizi izatea eta Euskal Herrian bakea lortzea.

AINZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

ANA SANCHEZ

35 URTE / ERIZAINA / BORMUJOSEN, SEVILLAN DIHARDU LANEAN

“Hasiera gogorra izan zen, baina uste baino errazago moldatu naiz Sevillako bizimodura”

EDU MENDIBIL

Martxoa ezker ari da Ana Sanchez Bormujosen (Sevilla) lanean. Aurretik sei urte eman zituen Arrasateko ospitalean. Neguan, berriz, Sevillara joateko aukera izan zuen: “Arreta intentsiboko unitatean lan egiteko eskaintza egin zidaten, eta hasiera baten hona etortzeko zalantzak izan arren, ez naiz damutzen hartutako erabakia-rekin. Oso gustura nago hemen. Hasiera gogorra izan zen, etxe-koen eta lagun hutsunea nabaritzen nuelako. Baina lankideek primeran hartu ninduten hasieratik eta uste baino errazago moldatu naiz hemengo bizimodura”.

Sevilla hiritik zazpi bat kilometrorra dagoen Bormujos herrian bizi da. Bi lankideekin konpartitzen du etxebizitza: Beatriz, Huelvako, eta Marga, Utrerakoa: “Tamainari dagokionez, Bergararen antzeko herria da Bormujos. 12.000 biztanle inguru dauzka eta hemengo San Juan de Dios ospitalean egiten dugu lan. Ospitalea berria da, bi urte besterik ez dauka eta lankideen artean jende gaztea da nagusi. Giro atsegina daukagu lanean. Ospitale nahiko handia da: 700 lagun ari gara lanean”. Esan bezala, arreta intentsiboko unitatean dihardu Ana: “Gauza asko ikasten ari naiz; esperientzia aberasgarria gertatzen ari da”.

AUKERA ASKO SEVILLAN

Lanetik aparte, ez dute Bormujosen aparteko ezer egiten: “Etxea hemen daukagu, baina jai daukagunean nahiago izaten dugu Sevillara alde egin. Bormujosko merkataritza etxeetan badira zinema aretoak eta abar, baina Sevillan askoz ere giro hobea egoten da. Jendea egunean bizi da hemen, ez dago Euskal Herrian jasaten dugun estresik eta lana bukatzean beti dago lankideekin edo lagunekin buelatxo bat emateko aukera. Izugarri gustatzen zait Sevilla; aukera asko eskaintzen dituen

“Jendea egunean bizi da hemen, ez dago Euskal Herrian jasaten dugun estresik”

hiria da, ederra gainera”.


Aurreko astean Bergaran egon zen Ana, familiakoak eta lagunak bisitatzen: “Martxotik egoteke nengoen eta eskapatxoko bat egin dut Bergarara. Baina atsedean hartu beharrean, nekatuago itzuli naiz Sevillara; lagun guztiekin egon nahi eta ezin toki guztietara heldu...”.

Astelehenean Anarekin berba egin genuenean euria zen Sevillan: “Oso arraroa da hemen euria

egitea. Eguzkia izaten dugu ia egunero eta klimak ere laguntzen du bizimodua alaiagoa egiteko orduan...”. Hondartza-zalea izanik, hango hondartzeekin gozatzeko aukera ez du alferrik galdu: “Maiatzetik irailera bitartean ahal genuen guztietan joaten ginen Cadiz aldera: Puerto de Santa Maria, Chipiona, Chiclana, Zahara de los Atunes...”.

Udazkena heltzeaz bat bukatu dira hondartza egunak: “Pentsa, gaur berogailua jarri dugu telebista ikusteko... Baina, tira, hemengo hotza Bergarako baino askoz ere jasangarriagoa da”.

Gabonak heldu bitartean Sevillan jarraituko du. Orduan itzuliko da berriz Bergarara. Horren ondoren ez daki zer egingo duen: “Lan kontratua martxo arte daukat, eta orduan ikusiko dugu... Hobe egunean joan eta gauzak datozen moduan hartu”.



KABIA ERRETEGIA

Orain astelehenetik larunbatera zabalik

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Asteburuetan bazkariak eta afariak

Zubiaurre 23 Tel.: 943 76 23 08

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09


OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Non dago harrizko eserleku hau?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IRATI ALBERDIrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Irati! Galderaren erantzun zuzena: **Orbeandia baserria (Orbe Aundi).**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO** BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Scottex komuneko papera

12 erroilu + 4 doan

2,90€

483 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

'Sepulcros Blanqueados', 1971n

Sepulcros Blanqueados izeneko musika bikotearen argazkia dakarkizuegu oraingoa; Juan Antonio Deogracias eta Paquito Morecillo antzuolarrek osatzen zuten musika talde hori. Aurretik, Los Veleros boskotean jardun zuten biek, baina, taldea bertan behera geratu zenean, erabaki zuten bikote moduan jarraitzea.

Arrasateko Idoia dantzalekuan (gaur egungo Ostarku) ateratakoa da argazkia, 1971. urtean. *Noche de* lehiaketara aurkeztu ziren Juan Antonio eta Paquito. Loiola irriatiak zuzenean eskaini zuen lehiaketa; finalerdietarako sailkatu ziren, baina ez zuten lehiaketa irabazi.

Argazkia: Juan Antonio Deogracias



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzu!

FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 21
GUALLAR. San Antonio 5 . 943 76 11 05
- ZAPATUA, 22
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- DOMEKA, 23
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 24
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15
- MARTITZENA, 25
CAMACHO. Oxirondo 4 . . . 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 26
ZABALA. Barrenkalea 25. . 943 76 16 87
- EGUENA, 27
GUALLAR. San Antonio 5 . 943 76 11 05

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda) . . . 943 03 54 00
Bergarako Udaltzaingoa . . 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa . . 943 76 62 46
Ertzaintza 943 53 47 20
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak . . . 943 76 51 06

- GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50

- UDALA
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea . . . 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- URTE-MEZAK
Santa Marina
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
San Pedro
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorenzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soralueze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala [atetxea].
Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00
eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoibia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Egin duzu inoiz erosketarik Internet bidez?




LURDES IBARRA




MARGARITA MORAN



VIRGINIA ORRANTIA



VICTOR MARTIN



BORJA GONZALVO



ROSARIO DARMANDRAIN

Ez, sekula ere ez. Internet ez dut erabiltzen bestela ere. Dena den, entzuten diren gauzak entzunda ez dakit fidatuko nintzatekeen internetetik ezer erostera. Hobe betiko bidetik dendara joan eta erosi.

Ez. Nik ez dut internet erabiltzen. Alabek erosketarik ez dute egin, baina inoiz alokatu dute apartamenturen bat internet erabiliz, eta ongi joan zaie. Nik, ordea, badut denbora eta nahiago dut dendan erosi.

Ez, ez naiz oso abila internet kontuetan. Gainera, ez nintzateke fidatuko internet bidez egindako erosketekin. Erositakoa gaizki irtengo balitz ez nuke jakingo nora jo. Dendan erostea da onena.

Ez, sekula ere ez. Ez naiz teknologiaren laguna, ez dut ez ordenagailurik ezta sakelako telefonorik ere. Nik nahiago dut erakuslehoak begiratu eta gero komeni zaidana dendan bertan erosi.

Bai, gauza asko erosten ditut internet bidez. Bartzelonakoa naiz eta han badago joera hori: filmak, bidaia txartelak... erosi ditut. Janaria oraindik ez, baina toki batzuetan bada gogo aukera hori ere.

Inoiz erosi izan dut. Teknologiako gauzak edo bidaia txartelak, esaterako, merkeagoak aurki daitezke. Behin nire kontu zenbakia hartu eta erabili egin zuten, baina gainontzean ez dut arazorik izan.


TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK SANTA ANA PARKEA Irakurle batek esan digu Santa Ana parkea oso egoera kaxkarrean dagoela. "Bankuak apurtuta daude, eta lurra ere ez dago batere ongi. Euria egiten duenean putzu asko izaten da, eta edozein trabatu eta jausi egin daiteke harriekin. Liburutegia hantxe egonda gehiago zaindu behar lukete ingurua". //A.

BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Korredore"



—Frontoiko korredore bat il da infartuakin.

JON IRAEGI

BESTEKE SANA

“ Gaur egungo merkatu-munduan gauzak ez dira diren bezalakoak, saltzen diren bezalakoak baizik. Saltzen duguna (edo ez duguna) gara. Eta aitor dezagun: azokan postua ipintzerakoan Debagoienak ez du asmatu. Ez gara ez gipuzkoar ez bizkaitar moduan azaltzen. Aberatsegiak ez gara, pobreegiak ere ez, ez gara kexatzen. Donostiatik eta Bilbotik urrun eta garesti gaude, horiei bizkar bizi gara, beraz. Maltzagatik bailararako sarrera aihubia da, ez da erakargarria. Eta onar dezagun: EITBko promoko andaluzaren moduan "zozo" samarrak gara. Frigorifiko asko, farandula gutxi".
ELENA LAKA / Abokatua
'Asteleheneko Goienkaria' / 05-10-17

“ Zentzu egokian ari gara lanean. Prozesuak bete bidea egin du eta egiten ari da, baina euskal curriculumak oraindik ez du lortu merezi duen oihartzunik. Orain arte itzalean geratu den informazioa zabaltzea da Euskal Herriak Bere Eskolaren helburua. Garbi daukagu euskal curriculumak behar-beharrezkoa dela. Eusko Jaurlaritzak ia azterketa bat egin zuen, ikasleek Euskal Herriari buruz eta Europari buruz dakitena zehazteko. 100 galdera egin zituzten, eta ikasleek Euskal Herriari buruzkoa ez zuten gainditu eta Europakoak nota ona atera zuten Horrek zer esan nahi du? 16 urteko gazteek Europari buruz gehiago dakitela Euskal Herriari buruz baino".
IBAI REDONDO / EHBeko ordezkaria
'Berria' / 05-10-19

BERAIEK DIÑOĖ/ Aitziber Azkondo



San Martinetan doinu kaskarrak

Aspaldi atzean utzi genituen jaiak eta dagoeneko ahaztuta dugu danborradan ikusitakoa. Izango da komentarioren bat idatzi duenik. Beharbada beharrezko irakurketa ez nuen egin eta ez dut berririk izan.

Badirudi herri giroaz bat herriko tradizioarekin datozen ekitaldiak ere poliki-poliki ezerezean geratzeko indarrak ari garela egiten. Hala ere, ezer gaineratu aurretik, urteak, danborradaren alde muxu truk lan egiten diharduten lana alde aurretik eskertu beharra daukat. Badira eta, bat baino gehiago, isilean eta esker handirik jaso gabe egunak ematen dituztenak guztia prestatzen.

San Martinetako danborrada ostean entzundako komentario pare bat jaso nahi ditut ondorengo lerroetan, nahiz eta gehiago izan ziren. Hasteko, garrantzitsuena, musika. Bandaren doinua entzuteko arazo handiak izan ziren, beste behin. Guzti honen, parte hartzaileek danborra gogo gabe jotzea ekarri zuen eta

bide batez, danborradaren itxura kaskarra. Nahaspila handia. Ez dago horrelako ekitaldi batean danbor hotsak sinkronizatu gabe entzutea baino txarragorik.

Bestalde, ekitaldiaren amaiera. Antolaketa eskasa. Abesti bat sartu beharrean, bestea sartu zen. *Nagasaki* obra egitarau-

“Urteak daramatzagu ekitaldi bera egiten... ze azalpen du danborradan gertatutakoak?”

tik halabeharrez desagertu eta San Martin omentzeko egiten den antzezpena San Martin ereserkiarekin entzun genuen, *Nagasaki*-rekin izan beharrean. Baten aginduek bestearenak zapuztu zituen, harek dioena, besteak dio-

ena, urduritasuna. Prestatutako partitura ez! Hurrengo atera! A ze kaka nahastea! Agindu gehiegi gauza onerako. Ez ziren ba telebistan esaten den bezala, *pilotoa* prestatzen ari. Urteak daramatzagu ekitaldi bera egiten... ze azalpen du gertatutakoak?

Bada danborradaren itxura eta antolaketa aldatzeko interesa erakutsi dutenak. Ahal den neurrian lagunduko dugu datorren urteko danborradaren itxura hobetzen.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 02
Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegi
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 21a / 261. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

ELKARRIZKETA

ANDONI BALERDI/PAUSOKA GURASOEN ELKARTEKO PRESIDENTEA

“Gure asmoa da goizeko zaintza zerbitzuarekin lehenbailehen hastea, aurtengo ikasturtean”

AINTZANE IRIZAR

Urtebete egin du Pausokako presidente Andoni Balerdik. Azaroan urteko batzarra egingo du gurasoen elkarteak eta hantxe batzordea berrituko dute. Andonik azaldu digunez, zaintza zerbitzua da Pausokaren lehentasuna momentu honetan.

Bi urtez egon zara Pausoka elkartearen batzordean eta urtebete presidente. Zela laburbilduko zenuke bi urteotako Pausokaren lana?

Azkeneko urte honetan, zaintza zerbitzua martxan jartzeko buru-belarri dihardugu lanean. Iazko ikasturtean, maiatz bukaeran, gurasoei gutun bat helarazi genien zaintza zerbitzua erabiltzeko interesa zenbat umek izango luketen jakiteko. Orduan ez genuen erantzun larregi eduku, baina, oraingo ikasturtea hasi denean, berriro hasi gara zaintza zerbitzua martxan jartzeko lane-

an. Dagoeneko zerbitzua martxan jartzeko ez zaigu asko gertatu; zaintzako arduraduna topatzeko deialdia ere egin dugu eta hiru hautagai ditugu.

Zela funtzionatuko luke zaintza zerbitzuak?

Gutxieneko ume kopuru finko bat beharrezkoa da zerbitzua martxan jartzeko. Kopuru hori sei umekoa da; bost dauzkagu oraingoz, baina nik uste dut aurrera egingo dugula. Bost horiek goizez bakarrik erabiliko dute zerbitzua. Dena dela, guk hiru ordu-tegi planteatzen ditugu: goizez, eskolaratu aurretik, 07:30etik 09:00etara; arratsaldean, 16:30etik

18:30era eta eguaztenetan, arratsaldean eskolarik ez dutenez, 14:00etatik 16:30era.

Aurtengo ikasturtean zerbitzua martxan jarri nahi dugunez, gure asmoa da goizeko zaintza zerbitzuarekin lehenbailehen hastea.

Hori guztia, baina, muga batzuekin, ezta?

Bai; gurasoen interesak kontuan hartu behar ditugu, baina, noski, baita umearenak ere. Esaterako, goizez zerbitzua erabiltzen duenak, printzipioz, arratsaldean ezin izango du erabili.

Haurreskolak ia ikasturte bat egin du martxan. Ze balorazio egiten duzue?

Balorazio positiboa; dena dela, zaintza zerbitzurik jartzen ez bada, hankamotz geratzen da. Hau da, Haurreskolak sekulako zerbitzua ematen badu, baina gero horrek jarraipen bat ez baldin badauka, hankamotz geratzen da zerbitzua. Horixe da momentu honetan gure ardura nagusia.



“Gurasoen interesak kontuan hartu behar ditugu, baina, noski, baita umearenak ere”

HERRITARREN HITZA / Mikel Larrea • Langilea

Mundu zabala

Egun batean mundu honetan jaio ginen, beste edozein mundutan jaio gintezkeen moduan. Naturaren magiaz helburu garbirik gabeko gizakiak bihurtzen gara, ahalik eta bizi zoriontsuenaren bila. Lehen orduetan gurekin izan diren pertsonekin lotura behartsu bat daukagu, oraindik garbi izan gabe zer demontre egiten dugun hemen.

Gure izaera garapenean bizi garen inguruko ezagutzak menperatzen hasten gara, non gizaki ezberdinek Lurra izeneko planetan elkarbizitzaren saiatzaren gara. Bizkor bereizten ditugu animaliak

gure izaera arrazionaletik eta Ama Naturaren baime-narekin planeta guztiaren jabetza hartzen dugu.

Gure hedapena Lurraren azalera guztira mugatzen da, gaur egun azken txokora ere heldu garelarik, eta beste mundu batzuk aurkitzeko asmo inperialistak azalduz.

Badirudi gizakiaren helburu nagusienetako bat, hau da, bizi garen planeta ezagutzea,



“Helburu garbirik gabeko gizakiak bihurtzen gara, zoriontasun bila”

lortuta dagoela, baina bere mantentze-mendurako antolaketa lana geroago eta urrunago somatzen dugu. Zentzu honetan, gizakiaren arrazionaltasunak, mugarik gabe munduko pertsona guztiak elkartzeko balio beharko luke, gutxion artean denok ditugun arazoei aurre egiteko.

Egun baten, asmo horrekin jaio banintzen ere, Lurra nere etxea zela eta handik eta

hemendik askatasun guztiarekin ibili nintekeela sinistuz, gaur egun erakutsi didate lur eremu mugatu baten partaide naizela eta hango arau eta kulturari lotuta nagoela. Eta gainera, nere nortasunak nola ez duen bat egiten errealitate horrekin, lurraldearen txikiagotzea eskatzen dut nere idiosinkrasia bertara egokitu dadin.

Agian, bakoitza bere kotxean joan beharko ginen elkargunera. Bakarrrik espero dut, itzulketa bidaiari kotxe bakar batean izatea eta honen maleteroa helburu amankomunatu josita egotea.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Oraingo asteburuan ez da partidurik jokatu Eztalan.

PILOTA

Urriak 21 (Gipuzkoako Txapelketa)
19:30: Olalde-Lazkao (Nagusiak)
Ondoren: Olalde-Landare II (Pala)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 1 Eibartarrak B 1 (Ereg.)
Iliintxa 2 Antzuola 0 (Gazteak)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.
Olalde-Zazpi Iturri (Nagusiak) . . . 19-22
Olalde-Lagunak (Gazteak) . . . 22-17
Andoain-Olalde (Gazteak) . . . 22-17

HIRIGINTZA

Azaroan hasiko dituzte Buztinzuri kalea urbanizatze lanak

AINZANE IRIZAR

Buztinzuri kalean azpiegitura guztiak eta lurzorua berritzeko lanekin hasiko dira azaroan. Udaleko arduradunek espero dute bi hilabeteko epean, urtarrilerako, lanok amaitzea. Bi hilabete horietan Buztinzuri kalea guztiz itxita egongo da ibilgailuendako.



Azaroan hasiko dituzte lanak eta bi hilabetez egongo da itxita Buztinzuri kalea.

Ekainean onartu zuen Gobernu batzordeak alde zaharrek azpiegitura eta lurzorua berritzeko urbanizazio proiektua. 2003. urtean egin zituzten Buztinzuri kalearen zati baten lan horiek kale horretako etxebizitza berrien enpresa eraikitzaileek.

Hura izan zen alde zahar osoko azpiegitura eta lurzorua berritzeko lehendabiziko fasea. Bigarren faseko lanak izango dira

azaroan hasiko dituztenak. Herriko Plazatik Herri Ikastetxearen pareraino doan kale zatian egingo dituzte lanok. 129.000 eurokoa

da lan horien aurrekontua. Hurrengo fasetan, Kalebarren, Herriko Plaza eta Ondarre bertuko dituzte.



Antiguako errota ikusten egon ziren Eskoriatzako umeak

Florentino ohituta dago dagoeneko era horretako bisitak jasotzen. Martitzen arratsaldean Eskoriatzako Arizmendi ikastolako neska-mutikoen bisita izan zuten Antiguako errota. Irina zela egiten duten ikusi ahal izan zuten. Laugarren mailako ikasleak ziren, eta Eskualdea izeneko ikasgaiaren barruan egin zuten irteera; Oñatin, Bergaran eta Elgetan ere egon ziren./A.I.

LABUR

Bizkarrezurreko gaitzen gaineko berbaldia erretiratuen elkarteak antolatuta

Antzuolako erretiratuen elkarteak antolatuta, bizkarrezurreko gaitzen eta arazoaren gaineko berbaldia izango dugu datorren astean. Eguenean, hilak 27, izango da hitzaldi hori, Olanan etxeko aretoan, 18:30ean.

Michel Marmier doktore ezagunak berba egingo du bizkarrezurreko arazoaren gainean; kiropraktikako doktorea da bera. Parisen jaiotakoa da Marmier, baina, Amerikako Estatu Batuetan egin zituen ikasketak gehientsuenak. Bizkarrezurreko gaitzetan aditu ospetsuenetako bat da Marmier. 1971. urtetik zentro kiropraktikoa zuzentzen du Donostian.

Ipuin kontalariaren ikuskizuna bihar, zapatua, Udal Liburutegiak antolatuta

Udal Liburutegiko arduradunek ohi dutenez, biharko, zapatua, beste ipuin kontaketa saio bat antolatu dute. *Marilurrek* 5.722.630 ipuin dakizki da ipuinaren izenburua.

Ana Meabe aktoreak ipuin kontaketa antzetzua egingo du liburutegian. Ikuskizun interesgarria izango da, duda barik. Marilurrek ez daki bere aitona kontakutako ipuinak bizitza aldatuko dionik, baina halaxe gertatuko da.

Liburutegian izango da biharko ikuskizuna, 18:00etan. Lau eta bederatzi urte bitarteko umeei zuzenduta dago emanaldia.

Baserrien gaineko Josu Tellabideren hitzaldia azaroaren 3ra atzeratu dute

Atzo, eguena, egitekoak ziren Antzuolako baserrien gaineko berbaldia, Olananen, 19:00etan. Halaxe iragarri genizuen, gainera, aurreko asteko KONTUOLA aldizkarian. Josu Tellabide etnologoak egin behar zuen berbaldi hori. Azkenean, baina, Tellabidek kanpora joan beharra zuela eta, hitzaldia atzeratu behar izan dute. Azaroaren 3an, eguena, izango da, Olananen, 19:00etan. Esan bezala, besteak beste, Zaharkin proiektuan jardun zuen Tellabidek eta ondo baino hobeto ezagutzen ditu gure baserriak.

Droga Menpekotasunaren Prebentziorako tailerrak egingo dituzte Gaztegunean

Droga Menpekotasunaren Prebentziorako Ongizate batzordeak martxan jarri duen kanpainaren barruan, tailerrak egingo dituzte datozen lau zapatuetan, Gaztegunean, 17:00etatik 19:00etara; bihar, zapatua, urriaren 29an eta azaroaren 5ean eta 12an, hain zuzen ere. Sasoi elkarteak adituek zuzenduko dituzte tailerrok. 15 urtetik gorako gazteendako ere hainbat ekintza antolatzen dihardute azarorako. Gurasoei, berriz, drogen eta gazteen gaineko liburuxkak banatu dizkiete.

Domekan, urriak 23, bukatuko da Herriko Pilota Txapelketan izena emateko epea

Olalde elkarteak, urtero bezala, Herri Mailako Eskuz Binakako Pilota Txapelketa antolatu du. Olalde elkarteak kide hauengana jo behar da izena emateko: Felix Agirre, Bittor Arbulu, Josu Zabalo edo Balendin Zabalorengeana. Bikote bakoitzak hamar euro ordaindu behar ditu.

Hamabost urtetik gorako jokalarientzako da txapelketa eta pilota goxoarekin jokatuko dute. Egunik ez dute oraindik zehaztu, baina, Gabon jaiak aurretik bukatuko da txapelketa.

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

LEKY-BERRI
MERENDEROA

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko urriaren 21a / 243. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Bolatoki taberna azaroan itxiko dute, berriz errentan eman arte

IRATI AGIRREAZALDEGI

Egungo tabernariak azaroaren 16an utziko dute Bolatoki taberna. Ondoren, Udalak baldintzak aztertuko ditu berriz errentan eman ahal izateko. Euren asmoa da berriz zabalik egotea kiroldegia berritzeko lanak amaitzen dituztenerako.

Kiroldegia eta pilotalekua berritzeko lanetan dihardute uda ezkerro; eta lanak, besteak beste, Bolatoki tabernan ere egiten ari dira.

Hori dela eta, taberna errentan daukatenek hainbat eskari egin dizkiete Udal ordezkariari eta bete ezeari azaroan taberna itxiko dutela jakinarazi digute. "Obrak hasi zirenetik oso egoera kaxkarrean ari gara lanean. Komunik eta berogailurik gabe gaude; tabernara sartzeko oztopoak daude eta, gainera, goiko jangela itxi egin digute. Horrek eragin du azkenaldian jende gutxiago etortzea tabernara, eta horrela ezin dugu segi", esan digute Bolatoki tabernakoek.

Udaletik, ordea, taberna azaroaren 16an itxiko dutela baieztatu digute. Ondoren aztertuko dute berriz errentan emateko zein baldintza ipini. "Aurreikusita dago martxorako kiroldegiko



Kiroldegiko berritze lanak direla-eta zailtasunak daude Bolatoki tabernara sartzeko.

berritze lanak amaituta izatea; eta taberna aldekoak baliteke lehenago egitea. Beraz, ordurako taberna errentan emateko asmoa daukagu", esan digu alkateak.

BERRIKUNTZA GEHIAGO

Bestalde, Patxi Basaurik esan digu proiektuak gain beste berrikuntza batzuk ere egingo dituztela frontoian: frontisa eta

kantxa zabaldu eta ezker pareta altueran altxatu egingo dute eta sarea kendu. "Horrela, pilotak ez du horrenbeste aldiz sabaia joko eta ez du joko oztopatuko".

LABUR

Erretiratuen ibilaldia Aixolako urtegiara

Urriaren 26an Aixolako urtegiara ibilaldia egingo dute erretiratuek. 15:00etan plazan irten eta autoetan Urbedeinkatuara joango dira. Handik abiatuta nork bere neurriko ibilbidea egin ahal izango du. Autoa eramateko gertu daudenek Miren Villarri jakinarazi beharko diote; Norberak nahi izanez gero bere jatekoa eramango du. Eguraldi txarra eginez gero irteera beste egun batean egingo dute.

Domekan izango da mendi irteera Xoxote ingurura

Domekarako mendi irteera dago antolatuta herriko kirol jarduerak indartzeko asmoz. Nagusiak: Otarreren abiatu eta Kakuta, Xoxote, Izarraitz, Xoxoteko aterpea, Aittola ibilbidea egingo dute; txikiek, berriz: Aittola, Xoxoteko aterpea, Aittola bidea. Antolatuzaileek izena eman dutenei gogorarazi nahi diete irteera 09:30ean izango dela, plazan. Jende gutxi izena emanez gero autoz egingo dute bidaiari, bestela autobusez.

KULTURA

'Jazzaren abiadurak' emanaldia gaur gauean Espaloia aretoan

I.A.

Martitzeneko kontzertu handiaren ostean, asteburu honetan ere ez da ekitaldirik faltako Espaloian. Gaurko, barikua, jazz kontzertua dago iragarrita; bestalde, zapatuan pintura erakusketa bat inauguratu dute hantxe. Eta datorren barikuan antzerkia ikusteko aukera egingo da.

Udalak eta Kutxak antolatuta jazz kontzertua izango da gaur, Espaloian, 22:30ean, Mac Jeara's Band taldearen eskutik. New Orleansko doinuei eritmo handiagoa ipini eta bertaratzen direnak entretenitza du helburu zortzikoteak.

Horretarako, Ana Araujoren ahotsak tronpetan, klarinete, tronboi, saxo, piano, bateria eta helikoiaren doinuak izango ditu lagun taula gainean.

ERAKUSKETA ETA ANTZERKIA

Zapatuan, bestalde, Juan Carlos Mora margolari ekuadortarraren pintura erakusketa inauguratu dute, eta azaroaren 4ra arte egingo da ikusgai.

Datorren barikurako, berriz, antzerki emanaldia antolatu dute Udalak eta Kutxak. Txalo taldearen *Pakitarentzat bakarrik* antzezlanak izango da 22:30ean. Sarrera doan da.



Mac Jeara's taldeak New Orleansko jazzean oinarritutako piezak joko ditu.

ELKARRIZKETA

KARMELO ERRARTE, JUAN MARI OTXOA / ODOL EMAILEAK

“Odola ematea eskertzen digute, eta guk ere eskertuko dugu saria”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Debarroko odol emaileek euren eguna ospatuko dute domekan Arraten. Elgetako odol emaileak ere ospakizunean izango dira. Besteak beste, 25 aldiz odola emateagatik domina jasoko duten Karmelo Errarte, Juan Mari Otxoa eta Jose Mari Arotzena. Gu euretako birekin egon gara berbetan.

Noiztik zarete odol emaile?

Gutxi gorabehera 14-15 urte badira odola ematen hasi ginela.

Nolatan egin zineten odol emaile?

Karmelo: Lagun batek esan zidan beharra zegoela eta animatu egin nintzen ematera. Aurrez nik ere odolaren beharra izan nuen, eta nik bezala beste batzuek ere beharko zutelana pentsatuta egin nintzen odol emaile.

Juan Mari: Jendea odol beharrean dagoela jakinda, niri ematea ez zait batere kostatzen, eta gainera ongi sentitzen naiz.

Odol emaile moduan zein betebeharrak daukazue?

Karmelo: Ez daukagu inolako obligatorik. Nahi dugunean odola ematera joan eta kitto. Hiru hilabete behin eman dezakegu.

Juan Mari: Elgetan urtean bi aldiz egiten dute odol ateratzea, eta lanarengatik joan ezin banaiz beste herriren batera joaten naiz.

Eta odola emateko baldintzarik badago?

Karmelo: Kanpora bidaiaren bat egin edo bakuna edo botikaren bat hartu duenak ezin du epe batean odolik eman. Gutxieneko pisua ere izan behar da.

Juan Mari: Odola eman aurretik tentsioa hartzen digute eta galdetuta bat egin, eta horren arabera batzuetan ezin izaten da eman. Nik behin tentsioa baxu nuelako ez zidaten utzi. Odola eman ostean, analisia egin eta zerbait izanez gero abisatu egiten digute; beraz, hori ere abantaila da.



“Elgetan odol emaile asko dago baina azken ateraldian inoiz baino gutxiago joan ginen”

Elgetan odol emaile asko dago?

Juan Mari: Asko, bai. Gehien egon garenean ia 40ra iritsi gara.

Karmelo: Azken ateraldian, ordea, inoiz baino jende gutxiago egon ginela esan zuten.

Nola jaso duzue domina emango dizueten berria?

Karmelo: Pozik jaso dugu; eurek odola ematen dugunean eskertzen diguten moduan, guk ere eskertuko dugu saria.

“Jendea animatu nahi dugu odola ematera; noizbait eurek ere beharra izan dezakete eta”

Noiz arte jarraituko duzue odola ematen?

Karmelo: Osasunak utziz gero, 65 urtera arte jarraituko dut.

Juan Mari: Nik ahal dudana arte jarraituko dut. Jendea animatu egingo nuke odola ematera. Esango nieke odolaren beharra dagoela eta norbere buruarekin ez ezik besteekin ere pentsatu behar dela. Beharbada, inoiz norberak ere beharko duelako odola.

HIRIGINTZA

AYA lantegia datorren astean botako dute

I.A.

Orain arte Udalak biltegi moduan erabili duen AYA lantegiko eraikina datorren astean botatzekoak dira. Hala jakinarazi digute udaletxean. Torrealdeako etxebizitza berriak eta inguruaren urbanizazioa egin ahal izateko eraitsiko dute tailerra.

Hilabete amaieran hasi nahi dute Torrealdeako urbanizazio lanekin. Horretarako, Udalaren biltegi funtzioa betetzen duen AYA lantegia eraitsi behar dute.

Asteon tailerra husten jardun dute; eta hango materiala frontoi zaharrera eraman dute; Domingo Iturbe eraikinera. Eraiste lanekin, berriz, datorren astean hasiko dira.

PAGATZA

Lantegi zaharrak bota eta berriak eraikitzen dihardute Elgetan. Izan ere, Pagatza industrialdeko bigarren fasean 10.000 metro koadroko pabilioi bat egin dute. Bizkaiko Alufersa enpresaren egoitza izango da eta sukaldeko altzariendako osagarriak egingo dituzte han.

Bestalde, enpresa batek proiektu bat aurkeztu du Udalan Pagatza 11.000 metro koadroko partzela batean pabilioiak eraikitzeko. Pabilioi hauek lantegiak bertan kokatzeko izango dira eta enpresa honek salgai ipiniko ditu.

Udalak proiektua onartuz gero, Pagatzako bigarren faseko lursail gehiena hartuta legoke; guztira, 35.000 metro koadro ditu eta 10.000 jadanik eraikita daude.



Euskara ikasten 13 lagun ari dira

Hainbat herritarrek euskara ikasteko gogoaz azaldu eta Udalak horretarako aukera eskaini die aurtengo ikasturtean. Astelehenean egunero bitartean egunero bi orduko saioak egiten dituzte kultur etxean 13 ikasle. Marisa Landaburu irakaslearekin dihardute talde bakarrean. Bakoitzak duen euskara maila hobetzea edo euskara ikastea da asmoa. /I.A.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko [blog komertzialak](#)

- Zure negozioaren eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- E-maila onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak ·
azabarte@goiena.com ·
943 76 92 70

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

www.goiena.net/blogak

/4quattro4
/arregi
/atai
/azkarate

/joseba
/BZ-sistemas
/gallastegi
/garaia

/gutzieder
/korozabaleta
/lilura
/multipticas

/ohiak
/okipark
/vitoria
/pando

/udalax
/udalaitz



Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko urriaren 21a / 24. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05



Hirugarren eta laugarren solairuak berritu eta egokitu egingo dituzte; laugarrenetik hasi dituzte lanak.

Psikogeriatría zerbitzua San Martin egoitzan

OIHANA ELORTZA

Psikogeriatría zerbitzua jarriko dute San Martin egoitzako hirugarren solairuan eta autonomoendako izango da laugarrena: logelak, instalazioak eta larrialdietarako irteera berriak ere egingo dituzte. Irailean hasi zituzten lanak, eta sei hilabeteko epea dute.

San Martin egoitzan obrak egiten ari dira. Egoitzako alde zaharren ari dira lanak egiten, hirugarren eta laugarren solairuetan, hain zuzen ere.

Hirugarren solairuan, psikogeriatría zerbitzua jarri gura dute. Horrekin batera, laugarren solairuko logelak egokitu egingo dituzte, eta instalazio orokorrak, igogailua eta larrialdietako zerbitzuak berritzatzeko ere aprobetxatuko dituzte lanak.

PSIKOGERIATRIA ZERBITZUA

Egoitza barruan egon arren, izaera autonomoa izango du psikogeriatría zerbitzua. Jangela eta egongela propioak izango ditu, adibidez. Zerbitzu hau jartzeko, goitik behera berrituko dute San

Martin egoitzako hirugarren solairua. 15 lagunendako tokia izango du eraberritu ostean.

Laugarren solairuan ere egingo dituzte eraberritze lanak. Arazo arkitektoniko guztiak deuseztatu dituzte eta logela guztiak gurgildun aukietan daudenean ere erabiltzeko moduan jarriko dituzte. Printzipioz, autonomoak diren lagunak egongo dira gero laugarren solairu horretan, baina beharrenean eta eskariaren arabera erabiliko dute.

BESTE BERRIKUNTZA BATZUK

Hirugarren eta laugarren solairuetako lanez gain, beste hainbat berrikuntza ere egingo dituzte San Martin egoitzan.

Eraikin barruan: aldatu egingo dituzte ateak, igogailuak arau

berria egokituko dituzte, ekipo elektrogenoa eta megafonia sistemak ere berriak jarriko dituzte eta larrialdi eta sute irteerak sendotu egingo dituzte. Eraikinaren kanpoaldean, berriz, egurrezko elementu guztiak kendu egingo dituzte eta horien tokian aluminiozkoak jarriko dituzte.

Irailaren 22an hasi zituzten lanak, eta sei hilabeteko epea dute. Lanen aurrekontua da 952.063 euro; %75 Foru Aldundiak hartuko du bere gain eta gainerakoa egoitzako fundazioko fondearekin eta Kutxaren dirulaguntzekin ordainduko dute.

85 LAGUNENDAKO TOKIA

Momentu honetan, 63 lagun daude San Martin egoitzan. Lanak amaitu ostean, 85 lagunendako tokia izango du herriko erretiratuaren etxeak. Egoitzan dagoen norbait hiltzen denean, hara joateko zain dagoen beste herritar batek hartzen du haren tokia. Lanak bukatu arte, ordea, ez dute beste inor hartuko tokia egonda ere. Hala ere, San Martin egoitzan sartzeko interesa duenak izena eman dezake Udal Gizarte Zerbitzuetan: 943 03 77 00.

Egun 63 lagun daude San Martin egoitzan eta lanak bukatu ondoren, 85 sartuko dira

LABUR

Guraso eskolak ikasturte berria aurkeztu du eta izena emateko epea zabalik dago

Guraso eskolak 2005-2006 ikasturterako egitaraua prestatu du. Hiru gai nagusi jorratuko dituzte: *bulling* fenomenoak, auto-kontrolerako ariketak eta nerabezaro aurrea. Izena emateko epea azaroaren 2an amaitzen da. Argibideak 943 03 77 00 telefonon. Matrikula 10 euro da. Azaroan dira lehen hitzaldiak.

Ikuskizunak eta kontzertuak gaur eta bihar Gaztelekuan, Santa Anan eta Gaztetxean

Otehitzari biraka ikuskizuna eta hainbat kontzertu daude asteburu honetan. Gaur, egubakoitza, *Glen Matlock & The Philistines* eta *Potemkin* Gaztelekuan, 22:00etan. Zapatuan, *Manifa, Banda Batxoki, P.K.U.* eta *Kontra Lei* Gaztetxean, 17:00etan eta 22:00etan. Santa Anan, *Otehitzari biraka*, musika, poesia eta bideo ikuskizuna Kukai eta Ttanttaká taldeekin.



Txandak beste hiru sari eman ditu

Ines Maiztegi, Amelia Vazquez eta Oihana Ruiz dira uztaileko, abuztuko eta iraileko saridunak, Txanda txartela erabiltzen dutenen artean. Landetxe batera edo talasoterapiara joateko saria eman die hirurei Zuriñe Mendia Txandako ordezkariak.



DIODO LASERRA



Gorputz osoko laser depilazioa

- Hiru hilabetean behin
- Tratamendua bukatzeko lau edo sei saio
- Medikatuak egina

GALDETU KONPROMISORIK GABE

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

BOLU SUKALDEAK



2000
eguneko
garantia.
Aurrekontua
konpromiso
gabe.

Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK

EGUREN

Irala 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).
943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA

Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA

Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOA

JESUS LASKURAIN PEREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53